

Erreferentzia kodea: ES/NA/AACF/2/044

Izenburua: OBRA HIDRAULIKOEN ZUZENDARITZA NAGUSIA

Datak: 1960-1986

Deskribapen maila: Funtsa

Bolumena eta euskarria: 4 instalazio unitate

Sortzailea: OBRA HIDRAULIKOEN ZUZENDARITZA NAGUSIA

Erakundearen historia:

1936ko otsailaren 28ko Dekretuaren bidez berrezarri zen Herri Lanen Ministerioko Obra Hidraulikoen Zuzendaritza Nagusia, eta otsailaren 1eko 160/1968 Dekretuaren bidez berrantolatu zen. Zuzendaritza Nagusi horren mende dago Ebroko Uren Komisaria, besteak beste.

Ur komisariak Herri Lanen Ministerioaren 1740/1959 Dekretuaren bidez sortu ziren, eta Obra Hidraulikoen Zuzendaritza Nagusiaren menpe zeuden. Konfederazio adina ur komisaria ezarri ziren, konfederazio bakoitzaren jurisdikzioarekin bat etorritik. Dekretu horren bidez, Konfederazio Hidrografikoen eginkizunak haien eta ur komisaria berrien artean banatu ziren. Ur komisariaren eginkizunen arteko bat arro hidrografikoko hondakin uren erroldaren ardura izatea zen. Errolda horretan inskribatuko ziren ur horiek isurtzeko baimenak.

Azaroaren 18ko 1391/1988 Errege Dekretuak Nafarroari eskualdatu zizkion ordura arte Herri Lanen eta Hirigintzaren Ministerioak arlo horretan betetzen zituen eginkizunak eta zerbitzuak. Ordutik aitzina, Nafarroari dagokio aprobetxamendu hidraulikoak eta gainerako obrak programatzea, onartzea, egikaritzea eta ustiatzea, bai eta obra horiek egiteko toki erakundeei laguntza ekonomikoa ematea ere.

Gorde den dokumentazio eskasaren artean, nabarmentzekoa da Ebroko Uren Komisariako Industria Aplikazioen Zerbitzuak egindako azterlan bat, "Arga ibaiaren (Nafarroa) azterketa analitikoa" izenburua duena, hondakin uren isurketei buruzkoa. Azterketaren helburua da ibaiko uren eta ibaiadarren kutsadura maila ezagutzea, ibaiertzetan dauden eta hondakinak ibaietara isurtzen dituzten industriak eta herriak kontuan hartuta. Ondorioen kapituluan, Gobernuaren Presidentziaren dekretu bat eskatzen da, Industria Ordezkaritzek eta Meategien Buruzagitzek baimenik eman ez dezaten industriak martxan jartzeko edo aldatzeko, baldin eta aitzinetik ez badute isurtzeko baimenik eta ur emakidarik, dagokion Zerbitzu Hidraulikoak emanak. Halaber, ibaietara egiten dituzten isurketak legeztatzeko eskatzen zaie honako udal hauei: Iruñea, Atarrabia, Burlata eta Uhartea. Izan ere, kolektoreen proiektua baduten arren, isurketen erantzule dira, eta urak ibaietara isuri aitzinetik araztu egin behar dituzte.

Era berean, egindako azken deskribapen lanei esker, ibaiak erregulatzeko eta urtegiak ustiatzeko proiektuei buruzko planoak aurkitu dira.

Funtsaren antolamendua:

044.01 OBREN SUSTAPENA

044.01.01 Zuzendaritzaren espedienteak

Sarrera baldintzak:

Ebaluazio Batzordeak dokumentazioa eskuratzeko epea ezartzen ez duen bitartean, Artxiboari eta Dokumentuei buruzko apirilaren 4ko 12/2007 Foru Legearen 20. artikuluan ezarritakoa bete beharko da.